

KATE GOGORRAK

Kate gogorrek darraite
arrotz gartzeletako gela ilunetan,
eta zakur beltzak dabilta
gure etxeetan gu guztion kaltetan.

Zakurren zaunkek ez dute
txalapartaren ttakuna ezabatuko,
ezta arrotzen hizkerak
gure euskararen lepoa makurtuko.

Euskal semeak dabilta
erbeste urruneko herri galduetan,
eta otso beltz basatiak
gure mendietan gu guztion kaltetan.

Arrano beltzak ordea
ez gaitu etsaiaren esku lagatuko
zazpi euskal herrietan
askatasun osoa ez bada lortuko.

Kostaburu



Kanpoan elurra dugu
barruan izotzak jo du
barruan dauden guztiak
kanpoan behar ditugu.